

# Iruña-Veleiari buruzko I. Nazioarteko Biltzarra

## Gasteizko Europa Biltzar Jauregia - 2012ko azaroak 24



### a) Aurkezpena

Iruña Okan aurkitutako grafitoei buruzko lehenengo biltzar honetan, **Edward Harris** arkeologoa izango dugu hizlari. Izen handiko arkeologo hau gaur egun mundu mailan gehien erabiltzen den *Harris Matrix* indusketa sistemaren sortzailea da. Bermudasen egiten du lan, bertako Itsas Museoko zuzendaria izanik. Harrisek Eliseo Gilek egindako indusketa lanari buruz eta lan hori auditatzeko aukerari buruz hitz egingo digu.

Santiago Compostelako Unibertsitateko Antzinako Historiako katedratiko emeritu, epigrafista eta arkeologoa den **Antonio Rodríguez Colmenero** grafitoez eta kata kontrolatuen beharraz jardungo du bere hitzaldian. Atsedendialdiaren ondoren Sevillako Centro Nacional de Aceleradoreseko teknikaria eta fisikan doktorea den **Francisco Javier Santosek** hondakin arkeologikoak datatzeko aukerez egingo du hitz eta, ondoren, Kataluniako Arkeologia Museoko Paleopatologia Saileko arduradunak, **Joaquín Baxariasek**, hezurak datatzeko aukerak jakinaraziko dizkigu.

Arratsaldean arkeologian doktorea eta Valentziako Kulturako Erret Akademiako Ikerketa Iberikoen Saileko kidea den **Luis Silgok** Iruñako grafitoei esker euskararen ikerketan eman dezakegun jauzi kualitatiboa izango du hizpide eta, ondoren, **Antonio Arnaiz** Madrilgo Complutenseko irakaslea grafitoetan agertutako grafia iberiarreko zeinuz arituko da. Ondoren, **ahozko komunikazioak** emango dira, jenderi oro har parte hartzeko aukera emanaz.

Grafitoen faltsukeriaren aldeko argudioak ere laburtuko dira biltzarrean, Julio Nuñez, Joaquín Gorrochategui eta Joseba Lakarraren txostenak laburtuz, parte hartzeko gonbitea egin bazaie ere, biltzarrean hitz egiteari uko egin diotelako.

Biltzarra, Euskararen Jatorria Elkartearen barruan, gai hau argitzeko orain dela 4 urte lanean hasi zen Arabako Iruña Argitzeko Batzordeak antolatu du.

## b) Egitaraua

### Goizeko saioa: arkeologia, arkeometria eta paleopatologia

09:00 Agurra eta aurkezpena

09:15 Antonio Rodriguez Colmenero: *Grafitos, textos y diseños de la Veleia romana: la urgencia de una solución*

09:45 Julio Nuñezen txostenaren laburpena

10:00 Edward Harris: *Iruña-Veleia in the context of the revolution in stratigraphic principles in archaeology*

10:45 Kafea

11:15 Francisco Javier Santos: *Métodos de datación por isótopos*

11:45 Joaquin Baxarias Tibau: *Estudio de las marcas antrópicas sobre hueso halladas en el yacimiento romano de Iruña-Veleia*

12:15 Mahai ingurua

14:00 Bazkaria

Goizeko saioko moderatzaileak: Joana Txarterina eta Antonio Arnaiz

### Arratsaldeko saioa: hizkuntzalaritza eta epigrafia

16:30 Luis Silgo Gauche: *Las inscripciones de Iruña-Veleia y la estabilidad de la lengua vasca*

17:00 Antonio Arnaiz Villena *The Iberian inscriptions in Iruña-Veleia (Inskripzio iberrirak Iruña-Veleian)*

17:30 Gorrochategui eta Lakarraren txostenen laburpena

18:20 Ahozko komunikazioak

19:00 Mahai ingurua

20:00 Ondorioak eta amaiera

Arratsaldeko saioko moderatzailea: Javier Goitia

## c) Izenematea eta informazioa

- Izena emateko: irunaveleiaargitu@gmail.com
- Zalantzak edo informazio osagarria: 688 887 301
- Ekarpena: 45 euro, bazkaria barne. Bazkaririk gabe: 33 euro
- Kutxabank: 2101-0092-16-0012334272 (Euskararen Jatorria). Abonua egitean jarri izen-abizena.
- Ondoren, posta elektronikoz ere izen-abizena bidali, izenematearen informazioa bidali ahal izateko.

## d) Biltzarren Batzorde Zientifiko eta Antolatzailea

Edward Harris, Antonio Arnaiz, Leire Saitua, Javier Goitia, Patxi Alaña, Xabier Rekalde, Aintzane Lazkano, Koldo Urrutia, Aitor Zugasti, Agurtza Lazkano, Javier Alonso Rubio, Felix Zubiaga, Joseba Mintegi, Joana Txarterina, Sara Goitia, Ines Olaskoaga eta Leire Gutierrez

## e) Komunikazioak nola aurkeztu

Iruña-Veleiako grafitoei buruzko komunikazio bat egin nahi baduzu, ondorengo datuak bete eta irunaveleiaargitu@gmail.com-era bidali **azaroaren 5erako**:

- 1.- Zure datuak: izen-abizenak, eposta, telefonoa, informazio osagarria egonez gero (ikasketak, kargua...)
- 2.- Komunikazio mota: ahozkoa (biltzarrean 10 minutuz power point baten laguntzaz azalduz) ala idatzizkoa (poster bat, kartulina tamainakoa gutxi gorabehera, Biltzarrean bertan jarriz)
- 3.- Komunikazioaren testua: ahal dela orrialde batekoa izan behar da (30 lerro ingurukoa), eta bertan, saiatu zaitez edukia honako ataletan gutxienez multzokatzen: Sarrera, Azalpena eta Ondorioak.

## f) Biltzarra egiteko zergatiak

Aldundiak grafitoak faltsuak zirela erabaki zuenean, ez zituen egin beharreko 3 aurretiko lan egin eta horregatik horiei buruz jardungo dugu:

- 1-Datazioak: nola egin, zeintzuk grafito datatu daitezkeen eta zeintzuk ez, nola... jakingo dugu
- 2-Kata kontrolatuak: horren beharra nabarmenduko da, orain arte ez direlako egin
- 3-Eztabaida zientifikoa: punta-puntako adituak ekarriz gogoeta sakona egingo dugu, eta gainera, partaideen ekarpenez osatuta

Biltzarra egingo den aste horretan, azaroaren 19an hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiak izendatutako Adituen Batzordeko kide askok eta Aldundiak berak grafitoak faltsutzat hartu, indusketa itxi eta Lurmen kaleratu zuten egun beltzaren 4. urteurrena beteko da. Aldundiak hori guzti hori dataziorik, kata kontrolaturik eta Lurmenen lanaren auditoriarik gabe egin zuen, nahiz eta Eliseo Gilek behin baino gehiagotan horiek egitea eskatu izan zuen.

## g) Nola heldu Europa Jauregia

Gasteizko Europa Jauregia Gasteiz etorbidean dago, 83. zenbakian. Bertara heltzeko, Bilbo, Donostia edo Nafarroatik etorri gero, Lakuarantz hartu, Forondako Atea zeharkatu eta biribilgune baten ondoren (Lakua amaitzen denean) zuzen Honduras kalera sartuko gara. Honduras eta gero, Gasteiz etorbideak du hasiera. Gasteiz etorbidean bertan eta Jauregia dagoen alderantz ez dago TAOrik.

Autobusez etorri gero, Bilbotik etorrira 2. geldiunean geratzea hobeto, Adriano VI.ren altueran. Donostia eta Iruñetik etorri gero Autobus geltokian jaitsi eta oinez 20 minutu inguru behar dira heltzeko, Alde Zaharra zeharkatuz.

